EUSKO JAURLARITZAKO KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKAKO SAILAREN KULTURA SAILBURUORDETZAK 2025EKO EUSKADI LITERATURA SARIAK ETA GURE ARTEA SARIAK BANATZEKO EKITALDIA ANTOLATZEKO KONTRATUAREN BALDINTZA TEKNIKOEN PLEGUAK

1. Kontratuaren objektua

2025eko azaroan Gipuzkoako udalerri baten antzokian egingo den Euskadi Literatura Sariak banatzeko ekitaldia antolatzea, eta urte horretan saritutako lanen eta pertsonen publizitate-kanpaina diseinatzea eta sortzea.

2025eko urrian Gasteizko Artium Museoan Gure Artea Sariak banatzeko ekitaldia antolatzea.

2. Egin beharreko lanen ezaugarriak

Egin beharreko lanak:

1. lotea: Euskadi Literatura Sariak banatzeko ekitaldia antolatzea, eta horien publizitate-kanpaina diseinatu, landu eta ekoiztea.

1.- Ekitaldia egin aurreko zereginak:

- José Ibarrola Bellidok Euskadi literatura sarietarako egindako «Liburu Nabigatzailea» eskulturaren beharrezko erreprodukzioak erostea. Eskulturak sariak ospatzeko ekitaldian banatuko dira. (Bakoitzaren kostu zenbatetsia: 600 €). Gutxienez zazpi sari beharko dira, eta gehiago ere izan daitezke, sari bat bi pertsonek partekatzen badute.

- Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak sarituen izenak jakinarazteko antolatutako bi prentsaurrekoetara joatea, pertsona horiekin harremanetan jartzea eta argazkiak egitea, sariak banatzeko ekitaldian erabiltzeko, dibulgazio-materiala egiteko eta publizitate-kanpaina egiteko.

- Kultura Sustatzeko eta Kultura eta Sormen Industrietako Zuzendaritzak egindako zerrendaren pertsonetarako gonbidapenak posta elektroniko bidez bidaltzea, emailez eta telefonoz erantzunak jasotzea eta ekitaldira joango diren pertsonen zerrenda egitea.

2.- Ekitaldiaren diseinua, antolaketa eta koordinazioa:

- Kultura eta Hizkuntza Politika Sailarekin eta Eusko Jaurlaritzako Lehendakaritzarekin koordinatuta, banaketa-ekitaldiaren gidoia eta eskaleta egitea, 60 minutu ingurukoa. Gidoia genero-ikuspegiarekin egin beharko da.

- Saritutako liburu edo pertsona bakoitzaren bideoak egitea, emate-ekitaldian emititzeko.

- Agertokia muntatzea, altzariak edo zentroak ez duen beste edozein tresna edo material tekniko (led pantailak, fokoak…) alokatzea barne. Enpresa esleipendunak aretoaren egokitzapenak egingo ditu, aurkeztutako proposamenaren arabera. Aretoaren alokairua kontratu honetatik kanpo geratzen da.

- Ekitaldia egingo den zentroan ekitaldia egin aurretik saritutako pertsonentzat gune bat jartzea.

- Ekitaldiari hasiera emateko eta ekitaldian zehar egingo den musika-emanaldiaren kontratazioa.

- Ekitaldiaren aurkezpena egingo duen pertsona bat kontratatzea, baita saritutako testuen zatiak irakurriko dituzten bi pertsona ere, gutxienez. Aurkezlearen testua enpresa esleipendunak egingo du, eta Kultura Sustatzeko eta Kultura eta Sormen Industrietako Zuzendaritzak gainbegiratuko du.

- Ikus-entzunezkoez, argiez eta soinuaz arduratzen diren teknikariak kontratatzea, bai eta sarrera, harrera eta aretoa kontrolatzeko laguntza-langileak ere.

- Erantsitako aretoan ekitaldia amaitu ondoren zerbitzatuko den koktela kontratatzea. (Edaria eta gutxienez bost pintxo izan beharko ditu).

- Banaketa-ekitaldia zuzentzea eta koordinatzea.

- Ekitaldia grabatzea eta ateratako bideoaren muntatzea.

- Sari-banaketaren berri emateko erabiliko diren ekitaldiaren dozena bat argazki, sareen bidez zabaltzeko minutu bateko bideoa euskaraz eta gaztelaniaz eta 20 segundoko irrati iragarkiak euskaraz eta gaztelaniaz.

- Euskadi Sariak emateko ekitaldia garatzeko beharrezkoa den beste edozein kudeaketa, erosketa edo hornidura.

3.- Euskadi Sarietako publizitate kanpainaren diseinua eta ekoizpena:

- Saritutakoen pertsonen eta liburuen argazkien edizioa eta publizitate-kanpaina egiteko egokitzapena.

- Sariak banatzeko roll-upak (2) diseinatzea eta egitea.

- 2025eko Euskadi Sarien zabalkunde-kanpaina diseinatu eta sortzea, Euskadi Saria lortu duten lanak eta pertsonak bertan direla. Bi A3 kartel (liburuak eta sortzaileak), eta zazpi orri-markagailu desberdin egitea.

- Hedapen-materiala inprimatzea, A3 neurriko 1.000 kartel, eta 20.000 orri-markagailu barne.

- Sortutako materiala Euskal Autonomia Erkidegoko 400 posta-helbidetara banatzea.

- Sortutako diseinua web gunetan erabiltzeko egokitzea: 12 banner, 7 megabanner eta 3 robapagina. Egokitzapenak idatzizko prentsan txertatzeko (12) eta publizitate-markesinetan erabiltzeko. Euskal Autonomia Erkidegoko prentsan eta ikus-entzunezko komunikabideetan egingo den hedapen-kanpainan erabiliko dira. (Zabalkundea beste enpresa batek egingo du).

2. lotea: 2025eko Gure Artea sariak banatzeko ekitaldia antolatzea.

1.- Ekitaldia egin aurreko zereginak:

- Ikusizko arteen arloan aditua den pertsona batek saridun bakoitzari bideo-elkarrizketa egitea, saridunek egindako lanari eta ibilbideari buruzkoa. Helburua da gutxi gorabehera 5 minutuko iraupena duten 3 bideo egitea. Bideo horiek sariak banatzeko ekitaldian emango dira, eta elkarrizketa horien alderdi nabarmenak jasoko dituzte. Bideoekin batera, elkarrizketen obrari eta edukiari buruzko irudiak aurkeztuko dira (Baliabideen bideoa).
Elkarrizketen grabazio osoa Kultura Sustatzeko eta Kultura eta Sormen Industrietako Zuzendaritzaren esku jarriko da.

- Sariak banatzeko ekitaldian banatuko diren Gure Artea sarien (trofeoak) sariak eskuratzea. Horretarako, aurreko edizioen eredua erabiliko da, behar bezala eguneratua (hodei horia metakrilato gardenaren gainean, sariari eta sarituei dagozkien inskripzioekin). Unitateko 150 euro inguruko kostua izango da. Gutxienez hiru izango dira, eta sari bat partekatua bada, gehiago izan daitezke.

- Ekitaldiaren nortasun grafikoa eta aplikazioak. Dagoen eredua ediziora eta aplikazioetara egokitzea: entrega-ekitaldirako gonbidapenak (digitala eta papera), elkarrizketa-bideoetan, karteletan...

- Kultura Sustatzeko eta Kultura eta Sormen Industrietako Zuzendaritzak egindako pertsonen zerrendarako gonbidapenak posta elektronikoz eta postaz bidaltzea, posta elektroniko eta telefono bidez erantzunak jasotzea eta ekitaldira joango diren pertsonen zerrenda egitea.

2.- Ekitaldiaren diseinua, antolaketa eta koordinazioa:

- Kultura eta Hizkuntza Politika Sailarekin eta Eusko Jaurlaritzako Lehendakaritzarekin koordinatuta, entrega-ekitaldiaren gidoia eta eskaleta egitea, 60 minutu ingurukoa. Gidoia genero-ikuspegiarekin egin beharko da.

- Agertokia muntatzea, beharrezkoa bada altzariak edo ikus-entzunezko beste edozein tresna edo material tekniko alokatzea barne, hala nola led pantailak, fokuak..., zentroak ez dituenak. Enpresa esleipendunak aretoaren egokitzapenak egingo ditu, aurkeztutako proposamenaren arabera. Aretoaren alokairua kontratu honetatik kanpo geratzen da.

- Ekitaldia egingo den zentroan ekitaldia egin aurretik saritutako pertsonentzat gune bat jartzea.

- Erantsitako aretoan ekitaldia amaitu ondoren zerbitzatuko den koktela kontratatzea. (Edaria eta gutxienez bost pintxo izan beharko ditu).

- Ekitaldiaren aurkezpena egingo duen pertsona bat kontratatzea. Aurkezlearen testua enpresa esleipendunak egingo du, eta Kultura Sustatzeko eta Kultura eta Sormen Industrietako Zuzendaritzak gainbegiratuko du.
- Ikus-entzunezkoez, argiez eta soinuaz arduratzen diren teknikariak kontratatzea, bai eta sarrera, harrera eta aretoa kontrolatzeko laguntza-langileak ere.

- Emate-ekitaldia zuzentzea eta koordinatzea.

- Ekitaldia grabatzea eta ateratako bideoaren muntatzea.

- Sari-banaketaren berri emateko erabiliko diren ekitaldiaren dozena bat argazki, sareen bidez zabaltzeko minutu bateko bideoa euskaraz eta gaztelaniaz eta 20 segundoko irrati iragarkiak euskaraz eta gaztelaniaz.

- Gure Artea sariak emateko ekitaldia garatzeko beharrezkoa den beste edozein kudeaketa, erosketa edo hornidura.

3. Ingurumen baldintza teknikoak

Mugikortasun-neurriak

- Gertuen dauden garraio publikoko geltoki edo geralekuen berri emango da eta seinaleztatu egingo dira.

Ekitaldian erabilitako materialak

- Eman beharreko materialak ingurumen irizpideren bat bete beharko dute (material berrerabilgarriak, paper/plastiko birziklatua…).

Kontratazioa eta catering-zerbitzua

- Beharrezko janaria kontu handiz planifikatu behar da, behar ez diren hondakin ahalik eta gutxien sortzeko. Beharrezkoa izango da aldez aurretik izena ematea.

- Ura etxekoa izango da eta pitxerretan zerbitzatuko da. Ez da inoiz ontzietan zerbitzatuko

4. Gainbegiratzea eta kontrola

Administrazioaren ordezkari batek kontrolatuko du egindako lana, enpresa esleipendunak hartutako konpromisoak behar bezala betetzen dituela ikuskatzeko. Enpresak ikuskapen-lanak erraztu behar ditu, eta eskatzen zaion informazio guztia eman. Gainera, lanaren garapenean izandako gorabeheren berri eman beharko du bileren bidez, eta amaitutako lan-unitateen laburpenak egin eta jakinaraziko ditu. Bilera-egutegi bat ezarriko da lanaren jarraipena egiteko.

Gasteiz, sinadura digitalaren datan

MARTA MERINO ORTIZ DE LANDALUCE - 16271148M

Firmado digitalmente por MARTA MERINO ORTIZ DE LANDALUCE - 16271148M
Fecha: 2025.04.01 13:16:30 +02'00'

Marta Merino Ortiz de Landaluce
Kultura teknikaria
Kultura Sustatzeko eta Kultura eta Sormen Industrietako Zuzendaritza